

# **INGURUMENARI BURUZKO ARGAZKI LEHIAKETA ARANGUREN IBARRA 2023**

**Parte hartu  
urriaren  
16a arte**



Ayuntamiento del Valle de  
**ARANGUREN**  
Ibarreko Udala

# OINARRIAK



**PARTE HARTZAILEAK** Lehiaketa irekia da. Adin nagusikoek, nahi duten guztiek parte hartu dezakete.

**GAIA** Aranguren Ibarreko landa edo hiri inguruneko zuhaitzen aniztasuna, edertasuna edo/eta garrantzia hobekien erakusten duten irudiak.

**MODALITATEA** Argazkiak formatu digitalean ekarri beharko dira, jatorrizko erresoluzioan eta CD batean. Paperean ere kalitatezko kopia bat ekarri beharko da, zuri-beltzean nahiz koloretan. Argazkien formatua 20x30 neurrikoa izango da. Aurkeztutako argazkia nondik atera den argitzeko aurkeztu daitezkeen irudiak, 13 x 15 neurrikoak izango dira. Irudien tratamendurako edozein teknika edo prozedura onartuko da.

**LAN KOPURUA** Gehienez hiru lan aurkeztu ahalko dira egile bakoitzeko.

**AURKEZPENA** Argazkiak gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, bertan adieraziz: Ingurumenari buruzko Argazki Lehiaketa.

Argazkiari atzetik itsatsitako paper batean, azaldu beharko dira: argazki bakoitzaren izenburua, deskribapen laburra, berarekin zer adierazi nahi den eta nondik egina dagoen. Argazkian nondik atera den ikustea zaila bada, hori adierazten duen beste argazki bat aurkeztea nahitaezkoa izango da.

Horrez gain, egilea Ibarrean erroldatua dagoen edo ez, kanpotik adieraziko duen gutun-azal itxi batean, egilearen datuak erantsiko dira (izena, abizenak, helbide osoa eta telefonoa) letra irakurgarri.

**SARIAK** Bi sari egongo dira: bata, orokorra, argazki hoberenarentzat, 250€ko saria; bestea, bertako argazkilari batek egindako argazki hoberenari, 150€. Bi argazkirik hoberenak bertako argazkilari batenak badira, aipatutako kopuruekin, lehenengo eta bigarren sariak emango dira.





EPEA ETA LANAK AURKEZTEKO LEKUA Urriaren 16a arte Aranguren Ibarreko Udaletxeko bulegoetan. Mutiloa plaza, z/g. 31192. Mutiloa.

EPAIMAHAIIA Naturguneak aukeratuko du, argazkigintzaren arloarekin zerikusia duten pertsonak eta Udaleko teknikariek osatuko dute.

EPAIMAHAIAREN IRIZPIDEAK argazkien kalitate artistiko eta teknikoak baloratuko dira; era berean, originaltasuna eta aurkeztutako lanek proposatutako lemarekin duten harremana.

EPAIA Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da. Sariaren bat hutsik gera daiteke. Epaia eta sari ematearen data saridunei zuzenean jakinaraziko zaizkie eta udaleko webgunean argitaratuko dira, azaroaren 3tik aurrera.

OHARRA Aurkeztutako lanak argitaratu, erakutsi eta zabaltzeko eskubidea Aranguren Ibarreko Udalaren esku geratuko da, beti egilearen izenak leku ikusgarrian agertu beharko badu ere. Aurkeztutako argazkiak, beraz, ez zaizkie egileei itzuliko.

OINARRIEN ONARPENA Lehiaketa honetan parte hartzeak aurreko oinarri guztiak onartzea suposatzen du.

